

## **HIRUKI DEIALDIA IREKIA (Arte Garaikideen Topaketa)**

**Garrobik HIRUKI 2019** (Arte Garaikideen Topaketa) deialdia zabaltzen du.

Edozein diziplinetako artistei zuzendua, aurkeztutako proposamena **HIRUKI**aren horma baten gainean edota haren aurrean burutzea posiblea izan ezker.

Hainbat sortzaile motari aukera emango diogu bere lana partekatzeko hiruki formako (hiruki-formako oinarri prisma) egitura modular batzuen inguruan.

### **NAHIAK**

Kultur kudeaketatik harago, eta produktua edo zerbitzua, kontsumitzailea, asebetetzea edo asebeteta gelditzea bezalako kontzeptuak alde batera utzita, *Garrobik* proiektu eta ekintza guztiekin, **HIRUKI**rekin ere bai, artearen inguruko komunitatea indartu eta hobetu nahi du. Asmoa da artistak, artezaleak eta ekimen, erakusketa eta ekitaldi bakoitzera joan nahi duten guztiek osatzen duten komunitatea zaintzea.

Helburu nagusi horrekin aurkeztu dugu **HIRUKI**. Tokiko kultur sarea sustatu nahi dugu, eta proiektua 5 urtez ehundu dugun sare horren ardatz edo korapilo garrantzitsu bihurtu nahi dugu.

### **MODUAK**

Kasu honetan, hiruki formatik abiatuta hiruki formako oinarria izango duten 3 egitura eraikiko ditugu. Horiek 200 x 200 zentimetroko bederatzi plano karratu sortuko dituzte, eta bertan artista edo artista talde kopuru berberak jardun ahal izango du.

Karratu bakoitzaren gainean edo haren aurrean margotuko, marraztuko, Tailerrak, proiektu aurkezpenak, kontzertuak, lanen erakusketak, antzezlanak, dantza emanaldiak, *performance*ak eta abar proposatu daitezke... hasierako egituratik harago hedatuko diren ekintzak edo esku hartzeak ere egin ahal izango dira.

Artista bakoitzari lagatako espazioaren, panel karratuaren gainean lan egiteko modua ezberdina izango da proiektuaren arabera. HIRUKI egunaren hasieratik, artistek askatasuna izango dute nahi bezala garatzeko. Proiektu batzuk agian inguratzen direnen parte hartze aktiboarekin egingo dira, beste batzuk performatiboak izango dira, besteak erakusketa hutsak eta abar. Gainera, guztiek ez dute iraupen berbera izango. Hortaz, egunear zehar, hiruki itxurako egiturekin sortutako 3 espazioak eraldatu egingo dira.

## HELBURUAK

- Artearen inguruko komunitatea indartzea eta hobetzea. Komunitate hori eta bertan bizi diren eta lan egiten duten artistena zaintzea.
- Jarraipena ematea Garrobiren presentziari, artistenari eta hainbat arrazoirengatik ohiko erakusketa bideetatik kanpo dagoen arteari. Azken hori herritarrengana inguratu nahi dugu, proiektu kultural handiei aurre eginez. Artea kalean.
- Askotariko artisten proiektuen aurkezpenei euskarri egokia ematea.
- Tokian-tokian elkarren aitortza sustatzea. Egiten ditugun ekintza guztien bitartez, herritarrak bere bizilagunarengan artista ikustea nahi dugu, eta aitortza horretan ulermen handiagoa egotea, jakin min sana, egiazko interesa eta elkarrengandiko ikasketa, orain daudenak baino handiagoak.
- Komunikazio bide berriak probatzea, sareek eta kartelek bilatzen dituztenak baino zuzenagoak eta espezifikagoak. 2018ko GARTen bi edizioetan, *Garrobik* ekitaldi bat diseinatu zuen, artea herritarrarengana inguratzen zuena, tabernetara eta plazara. Hiruki proiektuak ideia hori sakondu du, eta haren asmoa da egunerokoan tokitxo bat topatuko duen errutina bat sortzea.
- Komunikazio kanpaina bat diseinatzea, balizko ikusleak dituzten kolektiboetarako eta lekuetarako bisitekin, haiek informazio zehatza lehen eskutik jaso dezaten. (Elkarteak, arte akademiak, sorkuntzarekin eta kulturarekin lotutako beste espazio batzuk eta abar).
- Tokiko saltokiekiko harremana sendotzea, sarea indartzeko.

## **HIRUKI 2019 DEIALDIAREN OINARRIAK**

### **Norentzat:**

Edozein diziplinako artistak, haien proposamenak lekua badu HIRUKIren horma baten gainean/aurrean. Deialdia irekia da pertsona eta pertsona talde/kolektibo guztientzat, adin nagusikoak badira, edozein dela ere haien nazionalitatea.

Taldeka edo kolektiboka aurkeztutako proposamenek beren ordezkari bat aurkeztu beharko dute, eta hura arituko da solaskide moduan antolakuntzarekin.

### **Aurkezteko epea: Uztailaren 15etik irailaren 15era. IRAILAREN 20RA ARTE EPEA LUZATZEN DUGU**

### **Aurreko hautapena komunikatzea: Irailak 24**

**Artisten elkarretaratzea:** Irailaren 29a (bertaratzea ezinbestekoa). Irailaren azken asteburuan HIRUKI topaketa egingo dugu, Garrobiren eta aurrez hautatutako artisten artekoa. Topaketa lasaia izango da, agian otordu batean egingo dena, eta haren asmoa da artistek Getxo ezagutzea, Hirukiak kokatuko diren lekua, giroa, estetika, Getxoko moduak eta ohiturak eta Garrobi komunitatea/sarea, obrak ekitaldiaren espazioarekin eta izaerarekin hartu emana izan dezan, haiei eragin diezaien eta haiek hura ukitu dezaten. Topaketaren ondoren, artistek beren proiektuak bidaliko dituzte berriz, truke jardunaldi horretatik sortutako aldatetarik eginda.

### **ZER BIDALI ETA NOLA**

HIRUKIren parte izan nahi baduzu, helarazi dokumentu hauek posta elektronikoaren bidez, **infor@garrobi.com** helbidera. Mezuaren gaiari "HIRUKI Deialdia" idatzi behar da (dokumentuak 10 MB gaindituko ez duen PDF fitxategi bakar batean bidali behar dira)

- 1.- Datu pertsonalak (Izen-abizenak –eta izen artistikoa, desberdina bada–, helbide elektronikoa eta telefonoa).
- 2.- Behar teknikoak.
- 3.- *Curriculum vitae*a (Gehienez orrialde bat)
- 4.- Hirukirentzako proposamena jasoko duen txosten bat, azalduko duena obra horrek nola egin dezaken bat, nola izan dezakeen hartu emana eta nola ireki daitekeen Getxoko errealitatearekin, HIRUKI formatuarekin eta Garrobiren izaerarekin, edo hirurekin batera! (Gehienez 2 orrialde)
- 5.- Zure aurreko lana laburbiltzen duen txostena (Gehienez 5 orrialde)

\*Ez da adierazitako hurrenkeran egin behar nahitaez.

## **ZUZKIDURA EKONOMIKOA**

300 euro bideratuko dira proposamen bakoitzerako. Ordainketak faktura jaso eta berehala egingo dira. Fakturari dagokion BEZa gehituko zaio, halakorik badagokio. Entitatea/artista BEZetik salbuetsita badago, hori frogatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

## **PARTE HARTZAILEEN ETA PROIEKTUEN BALDINTZAK**

- Proiektua aurrera eramateko beharrezko informazioa eta materialak eman behar dira.
- Baimena eman behar da hautatutako lanak egoki iritzitako bitartekoetan argitaratzeko, ekimena ezagutzera emateko.
- Hautatutako proposamena adostutako datetan egiteko erantzukizuna hartzea, eta desmuntatzeko eta muntatzeko lanen ardura hartzea, proiektuak halakorik behar badu.
- Proiektuan aldaketak iradoki ahal izango dira, bideragarritasuna bermatze aldera. Egokitzapen horiek adostu egingo dira aurretik proiektuaren arduradunarekin.
- Informazio osagarria edo azalpenak eskatu ahal izango dira ebaluazioa modu egokian egiteko.
- Proposamena bideragarria izan beharko da kalean eta dagokion Hirukiaren aurrean.
- Hautatzeko baldintza bat izango da aurretik Garrobiren eta artisten arteko topaketan parte hartzea, irailaren 29an.

## **HAUTATZEKO IRIZPIDEAK**

Hautaketa batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Obraren interes artistikoa.
- Obraren egokitasuna/egokitzapena egingo den espazioarekin, harekin hartu emanean egotea, espazioarekin, Getxoko herriarekin eta Garrobi komunitatearekin berarekin.

## **EPAIMAHAIA ETA EBAZPENA**

Epaimahaia Garrobi kolektiboko artistek osatuko dute.

Hautatutako proiektuak jakinaraztea: urriaren 15a baino lehen.

**HIRUKI 2019** ekitaldia: azaroaren erdialdean. Data zehatza posible izan bezain laster jakinaraziko da.

Ebaluazioa: abenduan, ikusleengandik eta artistengandik jasotako iritziekin, baita Garrobirenekin ere.